



Bertaratuak: 4 emakume eta 8 gizon (12)

Langile teknikoak: Fernando, Laura, BM

Gobernu Taldea: Koldo:

Eguna: 2012ko otsailaren 18a

Lekua: Laudio Herriko Etxea

Ordua: 18:00

Fernando: Azaldu du, laburbilduta, III. fasea deitutako proiektuaren erredakziorako jarraitu den hautatze-prosezua, aukeratu den proposama eta horren barruan sartzen den

edukia. Horrekin konpondu egin nahi da irisgarritasuna lau mailatan: Beheko aldea, -oraintxe bertan egiten dena- I. faseari dagokiona, bi patioak tartean daudenak, auzoko goiko aldea -errepidea eta etxebizitzaren blokea-.



Proposamen hori aukeratu da aurkeztu diren 9 eskaintzen artean. Igogailuarekiko oinezkoen lotura konponduta uzten du, lehen barruko patioaren kotatik irispidea eskainita, urbanizazioaren beheko aldetik kontatzen hasita (I. fasea).

Oinezkoen arrapaletako desmaila ez inoiz %6 baino handiagoa izango; hori da oinezkoen ibilbideetarako

baimendutako gehieneko portzentajea.

Aukeratutako soluzioa bateragarria da dauden arazoak analizatuko eta konponduko dituen 4. fase batekin, mugikortasuna hobetuz, Mardones kalea eta Aceroseko etxeak bezala ezagunak direnen beheko aldearen arteko esparruan (I. fasea).

Proposamenaren aurkezpena etorri diren pertsonen hitza hartzen hasi aurretik, analizatu egin ditu gehien baloratutako bi proposamenen abantailak eta eragozpenak.

Auzokoa: Zergatik ez da aztertu esparru guztia, Mardones ere barruan hartuta? Horixe da auzotik beti defendatu izan dugun proposamena.

Fernando: Enkargua horrela eginda zegoen. Gainera, eskatu zitzaizen aurkeztuko zuten proposamena bateragarria izan zedila IV. Faserako beste soluzio posible batzuekin. Aukeratutako soluzioa bada bateragarria IV. fase horrekin. Horren analisisan irtenbideak bilatu beharko zaizkie %6aren gainetik dauden bi arrapalei eta eskaileren diseinuari. IV. fase honetan eskaileren paraleloan eskailera ala oinpeko mekanikoen irtenbide bat instalatzeko, beharrezkoa da dauden arrapalak egokitzea %6ra.

Auzokoa: IV. faserako konponbide mekaniko batera bagoaz, nik ez nuke ezer egingo arrapala horretan. Ez nuke dirurik inbertituko horiek doitu eta moldatzean. Nik uste III. Faseko proposamenak ez lukeela hipotekatuko IV. Fasearen analisisa eta horretan eman dakioken konponbiderik ere.

Koldo: Bilatu egin da soluzio bat bateragarria dena Mardones eta Aceros etxeetako goiko aldearen artean sartutako esparru osoaren garapenarekin.

Auzokoa: Borondaterik baldin badago, izan liteke bateragarria. Nik uste konponbide on bat izan daitekeela.

Auzokoa: Neure buruari galdetzen diot ia zertarako balio duen konponbide partzial batek, eragindako esparru guztiko beste zati batzuk analizatu barik uzten baditu.

Auzokoa: Gaur egun, irisgarritasuneko arazoek eraginik gehien duten aldea bada III. faseari dagokiona.

Laura: Mardones eta Arraño I. faseko arrapalek, gutxi gora behera, irisgarritasuneko araudia betetzen dute. Oinezkoen ibilbidetzat hartu ahal izateko derrigorrekoa da hor dauden arrapalen arteko 2 egokitzea %8tik %6ra. Bi arrapala horiek %6ra egokitzen baditugu, Mardoneseko arrapalek erabat beteko dute araua. IV. faseko irizpide mekanikoarekin lortuko genukeena izango litzateke alde bi horien arteko komunikazioa erosoagoa egitea, baina ez irisgarriagoagoak lege ikuspuntutik; lagundu eta erraztuko genuke mugikortasuna arrapala edo eskailera mekanikoen bitartez, baina irisgarritasuna bermatuta egongo litzateke oinezkoen arrapalen bitartez.

Auzokoa: Nik uste Laudion egin denik eta hutsegiterik handiena izan dela analizatzea eta soluzioak bilatzea espazio txikietan. Bazter bat dugu eta pentsatzen dugu zer gin horrekin. Bada gure auzoan jarduten aritu izan ohi da era berdinean. Behar duguna bada auzune guztiko ikuspegia; arazoak eta soluzioak analizatzea era integral batean, adabakiak ipini barik. Gero ikusiko dugu nola egiten diren gauzak. Argi dago zatika egin beharko dugula hori, baina alde zaureratik definituta edukiko dugu jadanik zer gura dugun auzuneko alde bakoitzerako. Eta ez naiz ari soilik irisgarritasunaz, baizik eta, baita ere, aisialdiaz, ekipamenduez, e.a. Jakingo dugu non eta zer egin une bakoitzean..

Auzokoa: Ba al dago III. fase honetarako proposatu den soluzioaren kostu-estimaziorik?

Laura: Aurrekontua zehaztuko da proiektua erredaktatzerakoan.

Fernando. Esleipendun arkitektoari azaldu diogu komenigarria dela bere proposamenean doikuntza batzuk egitea. Eskatu ahal diogu, baita ere, Mardoneseraino soluzioa barne hartuko duen aurrekontu bat eta bi fasetan banatuko duena. Aurreproiektu bat bezalakoa litzateke.

Auzokoa: Aurreikusi al duzue alde horretatik ibilgailuak ari direla zirkulazioan eta oinezkoa eta autoaren arteko elkarbizitza bermatu behar dela? [oharra: Alde hori erabat oinezkoen alde bihurtuta dago; eragindako auzokoak kontsultatu ostean, noizean behineko zirkulazioa dago zama-lanetarako eta emandako ibi-baimendun garajerako sartu-irtenetarako; auzuneko fase ezberdinek -I., II. edo III.- irizpide horri jarraitzen diote.]

Auzokoa: Ematen du igogailua etxetik oso hur kokatuta dagoela.

Fernando. Analizatzen ari dira arazo horren soluzio posibleak. Horixe, bada konpondu beharreko arazoetako bat. Igogailua urruntzea etxebizitzan albotik eta bermatzea garajeko ibi-baimendunen irispidea, horiek dira ebatzi eta konpondu beharreko arazorik nagusienak. Aukeratutako soluzioak arrapala ezabatzen du ibilgailuen joan-etorrirako; igogailua beherago lekuz aldatuta, eta etxeen blokeetatik aldentuta, bermatu ahal izango genuke ibi-baimendunen irispidea mantentzea gaur eguneko puntutik. Ibi-baimenerako dagoen beste aukera bat bada irispidea ematea etxebizitza esparru aldetik. Aztertu egin behar dira ondo soluzio horiek.

Auzokoa: Bat nator auzoaren erabateko erredefinizioa egitearen garrantzian. Bestalde, min ematen dit, berriro ere, egin izan den azkeneko obra-lana txarto eta gaizki egin izana eta oraindik ere aldatu beharra izatea guk.

Laura: Argitu eta zehaztu behar da txarto dagoen hori: Ez du betetzen %6arekin (ibilbidea) baina betetzen du, bai, arrapala legez (%8).

Auzokoa: Eskailerek ez dute betetzen. Baditugu San Roke Aldapetakoak, oso erosoak direnak, baina eskailera horiek ez dute betetzen araua.

Auzokoa: Mardoneseko eskailerak ez zeuden proiektuan; inguruabarrekoak izan ziren. Eskailerak geroago gehitu egin izan ziren.

Fernando. Lehen egin dudan proposamenean arkitektoari eskatzeko Mardonesen alde barne hartuko duen aurrekontua, gero bi fasetan banatu arren, bada horretan eskatu beharko litzaioke Mardonesetik I. fasera arteko irispide mekanikoaren kostua xehakaturik, arrapalak %6ra egokitzearen kostua eta eskailerak egokitzearen kostua, 15x35 mailekin, San Roke Aldepetakoen oso antzerakoak.

Auzokoa: Aukera hartzen badugu eskailera edo arrapala mekanikoen alde Mardonesetik, berdin gaude, badaudela oinezkoen bide-zati batzuk %6tik gainerakoak; beraz, eskailera mekanikoek edo arrapala mekanikoek ez dute bermatuko irisgarritasuna. Zerbait ipini beharra balego, soluzioa igogailu bat litzateke.

Fernando. Mardonesetiko irisgarritasuna konponduta geratuko litzateke araua betetzen ez duten bide-zatiak egokituta.

Koldo. Garrantzitsua deritzot aukera ezberdinak aurkeztea eta jakitea une bakoitzean zertaz berba egiten ari garen. Proiektatu dezakegu, baina gero finantziarioa bilatu behar da proiektu horietarako.

Auzokoa: Nik ez nituzke arrapalak ukituko.

Koldo.

Alternatibak behar ditugu eta ezagutzea horietako bakoitzaren kostua gero soluzioak aurkeztu ahal izateko.

Auzokoa: Lehen aipatu duzu -Fernandori ari zaio- igogailuaren plataformaren azpian funtzionala ez dela diozuen areto bat proposatzen zela. Nik uste aukera hori baloratu behar dela, auzorako bai izan daitekeelako funtzionala, txokolatada baterako edo pertsona nagusiek kartetara jolas dezaten.

Auzokoa: Horregatik diot nik heldu behar diogula analisiari auzune guztiko ikuspegi batetik, areto batez hornitzea alde honetan bezalako proposamena funtzionala den ala ez jakiteko.

Auzokoa: Ez dago zuzenean harremanetan bilerako gaiarekin, baina, Arraño urbanizatu egin zenean, ondo funtzionatzen zuen kanpo zuzendaritza bat zegoen. Gero esan zen ez zegoela dirurik eta obraren zuzendaritza Uda teknikariek egin zuten. Nik uste hutsegite bat izan zela. Proposatzen dut hurrengo aukeretan berriro ere obra-lanaren zuzendaritza kanporatzea.

Laura: Badirudi finantziario-lerroa aterako dela irisgarritasun proiektuetarako. Ez dakit honek deialdian sartzerik izango duen ala ez, baina analizatu beharko litzateke eta proiektuak egokitu diru-laguntza lerroetara. Auzo guztiko azterketa bat egiteari buruz, nik uste hori bateragarria dela faseka aurrera egitearekin. Hartu dugun konpromisoa bada esparruaren diseinua ixtea IV. fasearekin.

Auzokoa: Nik uste ausartak izan behar dugula diseinu urbanistikoarekin zeren bost altuerako igogailua eta alde biak lotuko dituen pasabide bat izan daitekeelako zerbait basatia eta ikaragarria, baina izan daitekeelako ere auzorako erreferentzia moduko zerbait. Betiere nola egingo dugun eta horren arabera.

Auzokoa: Nik uste proposamenarekin aurrera egin behar dugula, baina epeak eman behar direla, auzoari aurkez dakiola eta, baita ere, ondo aurrera egiteko auzo guztirako ikuspegi bat beharrezkoa izatearen bide hori jasotzea.

Auzokoa: Nik uste garrantzitsua dela proiektua moldakorra eta aldakorra izatea, fase ezberdinetara egokituko dena. Egia esan, proposamenak antza handia du orain dela urte

asko jadanik auzotik eginikoarekin, ezberdintasun bakarra da guk proposatzen genuela igogailua sartzea Mardoneseko magaleko beheko aldean, igogailurako sarrera magalean bertan sartzea.

Koldo. Oro har, denok ados gaude. Hori da lehen unetik defendatzen ari garena, hartutako soluzioa moldagarria izatearen beharrezana. Ideia bada aurrera egitea proiektuaren erredakzioarekin, kontuan izanik dauden arazoak eta, geroago, datu gehiago eta zehaztasun gehiagorekin, bilera bat egitea.

Fernando. Arkitektoari aurkeztu diogun beste gauza bat bada Zumalakarregi - Arraño lortzen dituzten eskaileretan erabilitako materialen zerrenda, irizpide estetikoak bateratzeko. *[Eskaileraren egoerari buruzko eztabaida sortu da, hondatzen dituen eta asteburuetan zehar hondatuta uzten duen ganberro eta baldarren lanaz, alde horren arriskugarritasunaz eta ipinitako kamara bidezko bideozaintzaz.*

Auzokoa: Berriro ere azaldu du plataforma azpiko aretoren funtzionalitatea baloratzearen garrantzia gizarte areto sozial legez, nahiz eta tematu duen, baldin eta soluzio horrek behartzen badu etxebizitzetara gehiegi hurbiltzea, hobe dela ez egitea hori. Halaber eskatu planning bat jakiteko zenbat denboraz berba egiten ari garen.

Laura: Proiektuaren erredakziorako epea 2 hilabetekoa da esleitzen den unetik hasita. Baliteke otsailaren amaiera aldera edo, epe hori kontatzen hasi ahal izatea. Gero martxan ipini beharko litzateke proiektua onartzeko tramitazioa eta izapideak egitea; kontuan izanik dituen fase ezberdinak eta publikoarentzako erakusketaaldiak, ez litzateke amaituko datorren urteko otsaila edo martxoa baino lehen. Hurrengo urratsa litzateke finantziazioa bilatzea, lizitatzea, esleitzea eta egikaritzea. Nolanahi ere, gaur egun finantziazioa izanda ere, ezin izango genuke obra-lana hasi, lehenago fase horiek agortu aurretik.

ONDORIOAK:

1. Erabaki da hurrengo bilera bat egitea auzoan (bolatokian) Auzoari proiektua aurkezteko.
2. Proposatu egingo zaio arkitekto erredakzio-egileari analizatzeko plataforma azpiko espazioak eskaintzen dituen aukerak lokal sozial legez eta bere eragina hurbilenerako etxebizitzetan.
3. Baloratu dira egin diren ahaleginak igogailua eta pasabidea etxebizitzetatik urruntzeko, hala nola garajeko ibi-baimenerako irispidea bermatzeko ahaleginak, inguru-eragina gutxituta.

4. Proposatu egingo zaio arkitekto erredakzio-egileari txertatzeko Mardoneseko arrapalak araudira egokitzeko kostuaren balorazio bat, Mardonesetik "Aceros etxe"etarako eskailerak egokitzeko eta Mardoneseko magaleko esker aldean dauden eskailerekiko paraleloan soluzio mekaniko bat ipintzeko, dela eskailera mekanikoa, oinpeko mekanikoa edo magalean sartutako igogailua.
5. Baloratu da auzo guztiaren ikuspegia hartu beharra dagoela, m hurrengo eta ondorengo jarduerak gidatzeko orduan.